



HIRIKILABS

EU/ES

HIRI LABO-
RATEGIA
LABORATO-
RIO CIUDA-
DANO

HIRIKILABS



+Info
hirikilabs@tabakalera.eu
943 11 88 55

Duque de Mandas 52, 20012,
Donostia / San Sebastián
Gipuzkoa

www.tabakalera.eu
www.dss2016.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Legebiltzaria
GOBIERNO VASCO



Donostiako Urdia
Ayuntamiento de San Sebastián



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
SECRETARÍA DE POLÍTICA DE CULTURA

PROGRAMAZIO ILDOAK LÍNEAS DE PROGRAMACIÓN



Laborategian proposatzen den programarekin bi eremu lantzen dira:

Lehen a gizarteratzean datza, eta publiko mota zabal bati zuzendua dago. Eremu hau jarduera programa bati lotuta dago, eta teknologia aplikatuen lantegiak, laborategien teknologiaren inguruko lantegiak, haur eta gazteentzako lantegiak eta hiritar ororentzat pentsatutako topaketak eskaintzen ditu. Bigarrena pentsamendua, ikerketa eta elkarlanari bideratua dago, kultura digitalaren ingurukoak ikertu nahi dituen publikoari bereziki zuzendua. Lan hau topaketa une eta gune ezberdinei esker egiten da, eta talde irekien, askotariko gaien inguruko zikloen eta topaketen bidez lantzen da.

Bi eremuak hurrengo programa ildo hauetan jasotzen dira:

Con el programa que se propone en el laboratorio se quieren desarrollar dos bloques de contenidos y llegar a diversas esferas de público:

El primer bloque, relacionado con la socialización y con la divulgación, tiene que ver con un programa de talleres de tecnología aplicada, talleres de técnicas propias del laboratorio, talleres para niños/as y jóvenes, así como con encuentros abiertos a toda la ciudadanía. El segundo, relacionado con el pensamiento, la investigación y el trabajo en colaboración, se dirige a un público con una vocación de investigar o cuestionar diferentes aspectos relacionados con la cultura digital y se articula mediante espacios y encuentros como los grupos abiertos, los ciclos temáticos o eventos específicos en el calendario del laboratorio.

Estos dos bloques se articulan a través de las siguientes líneas de programa:

HIRI- KIKAS

LANKIDETZAN ETA MODU
INFORMALEAN IKASTEKO
PROPOSATUTAKO JARDUERA
ILDOA DA. HIRIKIKASEN
HIRIKILABSEKO EZAGUTZA
GUZTIAK LANTEGI ETA
MATERIAL DIGITAL
(POST, TUTORIAL, KODE,
DISEINU...) BIHURTZEN DIRA
HERRITARRENGANA HEL-
DAITEZEN.

Hirikikasek astekako lantegi programa bat proposatzen du, eta bertan **teknologia modu sortzailean erabiltzen duten proiektuak garatzen dira**, prozesuan tresnak erabiliz eta teknikak ikasiz.

Saio bakoitzean, beren ezagutzak gainerako partaideekin partekatzen dituzten gonbidatuak izaten dira, baina proposatzen den ikaskuntza dinamika irakasteko, ikasteko eta dokumentatzeko ardura guztion artean partekatzen datza. Saio hauetan 3d inpresorak, robotika, programazioa, arduino, led argiak, fabrikazio digitala edo gisako teknologiak jorratzen dira.



ES LA LÍNEA DE ACTIVIDADES DE APRENDIZAJE EN COLABORACIÓN DE HIRIKILABS. HIRIKIKAS TRANSFORMA TODO EL CONOCIMIENTO DE HIRIKILABS EN TALLERES Y MATERIALES DIGITALES (POST, TUTORIALES, CÓDIGO, DISEÑOS,...), PARA CONTRIBUIR ASÍ A LA SOCIALIZACIÓN DEL CONOCIMIENTO EN TORNO A LA TECNOLOGÍA.

Hirikikas propone un programa compuesto principalmente por **talleres en los que se desarrollan proyectos que utilizan la tecnología de forma creativa**, de manera que se aprende haciendo.

Cada sesión cuenta con invitados que comparten su conocimiento con el resto de participantes, pero la dinámica de aprendizaje consiste en que la responsabilidad de enseñar, aprender y documentar es compartida entre todos y todas. Las temáticas que se abordan giran en torno a tecnologías como la impresión 3D, la robótica, la programación, el hardware abierto, la fabricación digital, etc.

HIRI LABO- RATEGIA

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak eta Tabakalera elkarlanean sortu eta garatzen duten proiektua da Hirikilabs.

Hirikilabs teknologiaren erabilera soziala, kritikoa, sortzailea eta kolaboratiboa uztartzen dituen kultura digitalari eta teknologiari eskaintako laborategia da. Tabakalera bezalako nazioarteko kultura garaikidearen ekoizpen zentro baten testuinguruan, mundu digitala, elkarlaneko sorkuntza eta herritarren ekimenak harremanetan jartzen dituzten aktibitateak eskaintzen ditu, esperimentazio eta prototipatze gune bezala.

Hirikilabsek teknologia zergatik, nola eta zertarako erabiltzen dugun hausnartzeko eta horren inguruan esperimentatzeko gunea izan nahi du. Era berean, Tabakalera baliabide bat ere bada, eta artista eta sortzaileei beren proiektuak garatzeko laguntza eskaintzen die. Halaber, ezagutza libre eta irekia sustatuz, inspirazio iturri ere izan nahi du, bai publiko orokorarentzat eta baita laborategiaren inguruan mugitzen den komunitatearentzat ere.

LABORATO- RIO CIUDA- DANO

Hirikilabs es un proyecto creado y desarrollado en colaboración entre Tabakalera y San Sebastián 2016 Capital Europea de la Cultura.

Hirikilabs es un laboratorio de cultura digital y tecnología que trabaja en torno al uso social, crítico, creativo y colaborativo de las tecnologías. Como espacio de experimentación y prototipado propone actividades que relacionan el mundo digital, la creación en colaboración y la iniciativa ciudadana y lo hace en el contexto de un centro internacional de producción de cultura contemporánea como Tabakalera.

Con su actividad, Hirikilabs quiere servir como espacio para la reflexión y la experimentación en torno a por qué, cómo y para qué utilizamos la tecnología, como recurso de Tabakalera para que artistas y creadores puedan materializar sus proyectos y como herramienta para inspirar mediante el conocimiento libre y abierto, tanto al público en general como a la comunidad en torno al laboratorio.

JO-LABS



JoLabs **familiak, haurrak eta gazteak teknologiaren eta kultura digitalaren mundura hurbil daitezten**, elektronika, mekanika, kodea, bideo-jokoak edota fabrikazio digitalaren inguruan garatzen diren jarduerak dira, gai hauek modu pedagogiko, kritiko, sortzaile eta dibertigarrian lantzen direlarik.

JoLabs laborategia hezkuntza ildoak garatzeko lehen pausu bat da. Lan ildo honek, beste batzuen artean, pedagogia kritikoen prozesuetara hurbiltzea bilatzen du, baita gaur egun eskola eremuan txertatzen ari diren kontzeptuak ikertu eta hauetan parte hartzea ere, adibidez, STEAM-en (Science Technology Engineering Arts and Mathematics).

JoLabs son **actividades pensadas para las familias, niños, niñas y jóvenes que quieran acercarse al mundo de la tecnología y la cultura digital**. A partir de talleres se trabajan temas como la electrónica, la mecánica, el código, los videojuegos y la fabricación digital, de forma crítica, creativa y divertida.

JoLabs es un primer paso en la línea pedagógica del laboratorio. A través de esta línea, se busca un acercamiento a las pedagogías críticas en sus procesos, así como estudiar y participar de conceptos que actualmente se están insertando en el ámbito educativo, como es el STEAM (Science Technology Engineering Arts and Mathematics).

PLAZA



HIRIKILABS PLAZA TOPAKETARAKO ETA INGURUKO PERTSONEKIN, TALDEEKIN ETA PRAKTIKA KOMUNITATEKIN ELKARREKINTZAN PROIEKTUAK GARATZEKO LEKUA DA.

HIRIKILABS PLAZA ES UN ESPACIO DE ENCUENTRO Y DESARROLLO DE PROYECTOS QUE SE CONSTRUYEN A PARTIR DE LA INTERACCIÓN CON PERSONAS, COLECTIVOS Y COMUNIDADES DE PRÁCTICAS DEL ENTORNO.

Beste pertsona batzuekin elkartzeko eta Hirikilabseko espazioa, makinak edota baliabideak lantegi ireki gisa ikertu, partekatu eta erabiltzeko unea da. Hala, D.I.Y.tik (egin ezazu zuk zeuk) D.I.W.O.ra (egin ezazu beste batzuekin) eboluzionatzen duten sormenezko ideiak errealitate bihurtzea da helburua.

Hirikilabs Plazan parte hartzeko urtean bi deialdi egiten dira. Deialdi hauek parte-hartze prozesuak ere badira, izan ere, behin proiektuak aurkeztuta, topaketa ireki batean partekatzen dira, horietan lan egin nahi duten taldeak osatzeko. Baldintza bakarra Plazan garatutako proiektuen emaitza irekia izatea da.

Orain arte garatu izan diren proiektu hiritarren artean daude, esatarako, **OpenBike** diseinu irekiko egurrezko bizikleta, **Donosti Tron** jolasmakina, **SeaChair** itsasotik birziklatutako plastikoz sortutako aulkia, **PsicoLedia 16bit**-eko led pantaila edo **Eraikizpi** erretxin bidezko 3D inprimagailu proiektuak, besteak beste.

Un momento en el que poder encontrarse con otras personas e investigar, compartir y utilizar el espacio, maquinaria y/o recursos de Hirikilabs en formato de taller abierto, para hacer realidad ideas creativas que evolucionen del D.I.Y. (hazlo tú mismo) al D.I.W.O (hazlo con otros/as).

Hirikilabs Plaza se articula a partir de dos convocatorias anuales en las que se eligen los proyectos a desarrollar. Estas convocatorias son también un proceso participativo en el que una vez presentados los proyectos se ponen en común en un encuentro abierto para configurar los equipos que trabajarán en ellos. La única condición para participar es que el resultado de los proyectos desarrollados en Plaza sea abierto.

Algunos de los proyectos ciudadanos que se han desarrollado hasta la fecha son **OpenBike**, bicicleta de madera de diseño abierto, la máquina recreativa **Donosti Tron**, **SeaChair**, una silla creada con plásticos reciclados del mar, la pantalla de led de **16bits PsicoLedia** o **Eraikizpi**, la impresora 3D de resina.

TALDE IREKIAK GRUPOS ABIERTOS



Kultura digitalari eta teknologiaren erabilera sozial, kritiko, parte-hartzaile eta sortzaileari loturiko gaien inguruko ikerketa irekia proposatzen duten guneak dira Talde Irekiak, eta **ezagutza sustatzea, proiektuak antolatzea eta komunitatea sortzea dute xede**.

Talde Irekiek eragina dute laborategiko jardueran, jakintza sortuz, ekintzak proposatuz, proiektuak eratuz eta baita aldaketak iradokiz ere.

Los Grupos Abiertos son espacios de encuentro que proponen la investigación abierta en torno a temáticas relacionadas con la cultura digital y el uso social, crítico, colaborativo y creativo de la tecnología, **con el objetivo de generar conocimiento, articular proyectos y crear comunidad**.

Los grupos abiertos inciden en la actividad del laboratorio, generando conocimiento, proponiendo actividades, creando proyectos e incluso sugiriendo cambios.

EGINZALEAK!

FABRIKAZIOAREN ETA TEKNOLOGIA HIRITARRAREN ASTEA / SEMANA DE LA TECNOLOGÍA Y LA FABRICACIÓN CIUDADANAS

EGINZALEAK! EKIMENAK HIRITAR TEKNOLOGIA, FABRIKAZIO DIGITALA, D.I.Y. SOFTWARE/HARDWAREA ETA SAREEN EKOIZPEN ETA BANAKETA DIGITALAREN BIDEZ GERTATZEN DIREN ARTISAUTZA ETA KOOPERAZIO PROZESUEN BERRESKURATZEAREKIN LOTURA DUTEN HAINBAT JARDUERA BARNE HARTZEN DITU.

EGINZALEAK! ENGLIBA UNA SERIE DE ACTIVIDADES EN TORNO A LA TECNOLOGÍA CIUDADANA Y LA FABRICACIÓN DIGITAL, EL SOFTWARE/HARDWARE D.I.Y. Y LA RECUPERACIÓN DE LOS PROCESOS ARTESANALES Y DE COOPERACIÓN QUE COBRAN VIDA A TRAVÉS DE LOS NUEVOS MODOS DE PRODUCCIÓN Y DISTRIBUCIÓN DIGITAL Y DE LAS REDES.

Ekimen hau urtez urte errepikatzen da eta lantegiak eta topaketak antolatzeaz gain, inguruko proiektuak eta ekimenak ikusarazteko azoka bat ere proposatzen du.

Jardunaldi hauek arreta jartzen dute, besteak beste, sorkuntza eta ikerketa sortzaileari, elkarlanean garatutako diseinu proiektuei, diziplina-arteko teknikei, jasangarritasunari, komunitatearekin batera eta haren mesederako tresnen garapenari eta giza teknologiaren bidezko hiritarren ahalduzeari. Asteaz zehar gertatuko diren jarduerekin, Hirikilabsek teknologiaren erabilera oinarri duten hiritar eta talde esperientziak ikusaraztea du helburu.

Eginzaleak!-ek nahasketa, esperientzien trukaketa, teknologiaren erabilera eta helburuen inguruko eztabaia eta gizarte-eta komunitate-mugimenduen eta teknologiaren arteko mugak aztertzeko testuingurua sortu nahi du.

Esta iniciativa que se repite cada año, además de talleres y encuentros diversos, propone una feria para dar visibilidad a proyectos e iniciativas del entorno.

Entre las diversas áreas de interés que cubren estas jornadas destacan la creación y la investigación creativa, los proyectos de diseño colaborativo, la transdisciplinariedad, la sostenibilidad, el desarrollo de herramientas para y con la comunidad y el empoderamiento ciudadano a través del uso de tecnologías sociales. Durante la semana de actividades Hirikilabs pretende hacer visibles algunas temáticas que de una u otra manera implican el uso de tecnologías y su relación con intereses o experiencias colectivas y ciudadanas.

Eginzaleak! pretende crear un contexto adecuado para la remezcla, el intercambio de experiencias, el cuestionamiento del uso y objetivos de las tecnologías y la exploración de los límites entre tecnologías y movimientos sociales y/o comunitarios.